

2023KO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI 2023



SARREREN AURREKONTUA

PRESUPUESTO DE INGRESOS

Euskadi, auzolana, bien común

**2023KO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORRAK**

**PRESUPUESTOS GENERALES
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DE EUSKADI 2023**



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2023ko urtarrila / 1a, enero 2023

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

1. SARRERA	
INTRODUCCIÓN.....	5
1.1. ESTATUARENTZAKO KUPOA. BOSTURTEKO LEGEAK CUPO AL ESTADO. LEYES QUINQUENALES.....	8
1.2. 2022-2026 URTEETAKO EKITALDIEI APLIKA DADIEKEN ETA EAEn AURREKONTUAK FINANTZATZEKO FORU ALDUNDIEK EGIN BEHAR DITUZTEN EKARPENAK ZEHAZTEKO METODOLOGIA METODOLOGÍA DE DETERMINACIÓN DE LAS APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES A LA FINANCIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS DE LA CAPV PARA LOS EJERCICIOS 2022-2026.....	12
2. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ARTEAN ITUNDUTAKO ZERGEN BIDEZKO BALIABIDEEN BANAKETA EREDUA 2023rako	
MODELO DE REPARTO PARA 2023 DE LOS RECURSOS POR TRIBUTOS CONCERTADOS ENTRE EL GOBIERNO VASCO Y LAS DIPUTACIONES FORALES.....	20
2.1. 2023rako DIRU-BILKETA AURREIKUSPENAK PREVISIONES DE RECAUDACIÓN PARA 2023.....	22
2.2. KUPOAREN METODOLOGIAN JASOTZEN DIREN KENKARIAK DEDUCCIONES PROCEDENTES DE LA METODOLOGIA DEL CUPO.....	37
2.3. EKARPEN ORROKORRAREN KALKULUA CÁLCULO DE LA APORTACIÓN GENERAL.....	45
2.4. EKARPEN BEREZIAK APORTACIONES ESPECÍFICAS.....	47
2.5. 2023 URTERAKO KOEFIZIENTE HORIZONTALAK COEFICIENTES HORIZONTALES 2023.....	49
3. FORU ALDUNDIEK 2023an EGIN BEHARREKO EKARPENAK APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES PARA 2023.....	52
4. 2023an JASO BEHARREKO TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS A RECIBIR EN 2023.....	54
4.1. EUROPAKO BATASUNETIK DATOZEN FONDOAK FONDOS PROCEDENTES DE LA UNIÓN EUROPEA.....	55
4.2. ESTATUAK EGIN BEHARREKO BESTELAKO TRANSFERENTZIAK OTRAS TRANSFERENCIAS DEL ESTADO.....	59
4.3. EUSKAL HERRIKO ERAKUNDEEN TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE LAS INSTITUCIONES DEL PAÍS VASCO.....	63
5. BESTE DIRU-SARRERA BATZUK OTROS INGRESOS.....	65
5.1. NORBERE ZERGAZK ETA BESTELAKO BALIABIDEAK TRIBUTOS PROPIOS Y OTROS RECURSOS.....	67
5.2. ZOR PUBLIKOA DEUDA PÚBLICA.....	71
6. 2023 URTERAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SARREREN LABURPENA RESUMEN DEL PRESUPUESTO DE INGRESOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA PARA 2023.....	80
7. 2023rako GASTU FISKALEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES PARA 2023.....	83

1. SARRERA
INTRODUCCIÓN



Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-sarrerak hainbat manutan daude jasota: Autonomia Estatutuaren 42. artikuluan; Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 17.1. artikuluan; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan. Azken honek honela sailkatzen ditu Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideak:

“31. atala.-Sailkapena.

1. Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideak edo pribatuak izango dira.

2. Eskubide publikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarenak eta erakunde autonomoenak direnak erlazio eta egoera juridiko jakin batzuen ondorioz; hau da, erlazio eta egoera horietan erakunde horiek ahalmen publiko batzuen jabe direnean. Eskubide publikoak honako hauek izan daitezke:

a) Zuzenbide publikoko sarrerak.

b) Beste eskubide batzuk.

3. Eskubide pribatuak dira Euskal Autonomia Erkidegokoarenak direnak baina atal honetako 2. lerroaldean jasota ez daudenak. Honelakoak izan daitezke eskubide pribatuak:

a) Zuzenbide pribatuko sarrerak.

b) Beste eskubide batzuk.

32. atala.- Zuzenbide publikoko sarrerak.

Aurreko ataleko 2. Lerroaldean zehaztutako irizpidearekin bat, honako hauek dira Euskadiko Ogasun Nagusiaren zuzenbide publikoko sarrerak:

a) Foru-aldundiek, lurralde historikoek erkidegoko aurrekontu-gastuetarako egin behar duten kontribuzioaren adierazgarri, Euskal Autonomia Erkidegoari egiten dizkieten ekarpenak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko tributuen eta prezio publikoen etekinak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoak zergetan ezarritako gainordainak, halakorik ezartzen badu.

d) Lurraldearteko Konpentsazio Fondoak egindako transferentziak eta Estatuko Aurrekontu Orokorraren kontura egindako beste asignazio batzuk.

e) Autonomia-erkidegoak edo bere erakunde autonomiadunek beste erakunde publiko batzuetatik jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.

f) Autonomia-erkidegoko administrazioak eta erakunde autonomiadunek zorpetze aldera egindako operazioen emaitza.

g) Autonomia Erkidegoko administrazioak edo erakunde autonomiadunek jarritako isun eta gainerako diru-zigorren emaitzak.

h) Euskal Autonomia Erkidegotik datozen administrazio-egintzak ordezkotz modura exekutatzetik datozen ordainarazpenak, kautelak izan edo ez.

Los ingresos de la Hacienda General del País Vasco vienen recogidos en diferentes preceptos legales: Estatuto de Autonomía, artículo 42; Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, artículo 17.1; Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. Este último precepto legal clasifica de la siguiente forma los derechos:

“Artículo 31. - Clasificación.

1. Los derechos de la Hacienda General del País Vasco son de naturaleza pública o de naturaleza privada.

2. Los derechos de naturaleza pública son los que pertenecen a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y a sus Organismos Autónomos como consecuencia de relaciones y situaciones jurídicas en las que dichas Entidades se encuentren como titulares de potestades públicas. Los derechos de naturaleza pública pueden ser:

a) Ingresos de derecho público.

b) Otros derechos.

3. Los derechos de naturaleza privada son los que pertenecen a la Comunidad Autónoma de Euskadi y no están comprendidos en el párrafo 2 del presente artículo. Los derechos de naturaleza privada pueden ser:

a) Ingresos de derecho privado.

b) Otros derechos.

Artículo 32. -Ingresos de Derecho Público.

De acuerdo con el criterio señalado en el párrafo 2 del artículo anterior, son ingresos de derecho público de la Hacienda General del País Vasco los siguientes:

a) Las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como expresión de la contribución de los Territorios Históricos a los gastos presupuestarios de la misma.

b) Los rendimientos de los tributos propios y de los precios públicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Los recargos que pueda establecer sobre impuestos la Comunidad Autónoma de Euskadi.

d) Las transferencias del Fondo de Compensación Interterritorial y otras asignaciones con cargo a los Presupuestos Generales del Estado.

e) Las transferencias y subvenciones de otros Entes Públicos percibidas por la Administración de la Comunidad Autónoma o sus Organismos Autónomos.

f) El producto de las operaciones de endeudamiento de la Administración de la Comunidad Autónoma o de sus Organismos Autónomos.

g) El producto de las multas y demás sanciones económicas impuestas por la Administración de la Comunidad Autónoma o sus Organismos Autónomos.

h) Las exacciones, cautelares o no, derivadas de la ejecución subsidiaria de los actos administrativos emanados de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

i) Eskubide publikoei egindako kalte-galeren ordainak.

j) Zuzenbide publikoko sarrerei dagozkien interesak.

k) Obligazio publikoak beteko diren berme modura jarritako kopuruak .

l) Erkidegoak pertsona publiko edo pribatuei sustapen-helburuekin edo interes publikorako emandako mailegu eta bermeen inguruan egindako kontratuengatik, autonomia-erkidegoko administrazioak edo erakunde autonomiadunek jaso beharreko kopuruak .

m) Autonomia-erkidegoak diru-laguntzaren bat eman ondoren, helburua edo baldintzak ez direla-eta bete, diru-laguntza horretatik autonomia-erkidegoko administrazioari edo erakunde autonomiadunei itzuli beharreko kopuruak.

n) Aurreko ataleko 2. lerroaldean aipatutako beste edozein diru-sarrera.

38. atala. Zuzenbide pribatuko sarrerak.

Hona hemen Euskadiko Ogasun Nagusiaren zuzenbide pribatuko sarrerak:

a) Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioaren edo erakunde autonomiadunen jabetzapeko ondasunak edo entitate horien eskubide errealak nahiz pertsonalak erabili edo eskura izateagatik lortutako etekin edo edozein motatako produktu, baldin eta dirutan zenbat balio duten zehatz badaiteke eta ez badaude zerbitzu publikorako erabilerapean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak jaraspen, legatu edo dohaintza bitartez eskuratutako guztiak.

c) Lege honetako 32. atalean jaso ez den beste edozein sarrera.”

i) Las indemnizaciones por daños y perjuicios producidos a los derechos de naturaleza pública.

j) Los intereses correspondientes a ingresos de derecho público.

k) Las cantidades que constituyen garantías de cumplimiento de obligaciones de naturaleza pública.

l) Los importes a percibir por la Administración de la Comunidad Autónoma o sus Organismos Autónomos en virtud de contratos referentes a préstamos y garantías concedidos por la Comunidad a otras personas públicas o privadas con fines de fomento o interés público.

m) Las cantidades constitutivas de subvenciones otorgadas por la Comunidad Autónoma, cuya devolución proceda en favor de la Administración de la Comunidad Autónoma o de sus Organismos Autónomos como consecuencia de incumplimiento del destino dado a dichas subvenciones o de las condiciones con las que se concedieron las mismas.

n) Cualquier otro ingreso que esté comprendido en el párrafo 2 del artículo anterior.


Artículo 38. -Ingresos de derecho privado.

Constituyen ingresos de derecho privado de la Hacienda General del País Vasco, los siguientes:

a) Los rendimientos o productos de cualquier naturaleza derivados de la utilización o disposición de los bienes de propiedad de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos, así como de los derechos reales o personales de que fueren titulares dichas entidades, susceptibles de valoración económica, siempre que aquéllos y éstos no se hallen afectos al uso o al servicio público.

b) Las adquisiciones a título de herencia, legado o donación, por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos.

c) Cualesquiera otros ingresos no comprendidos en el artículo 32 de la presente Ley.”



1.1. ESTATUARENTZAKO KUPOA. BOSTURTEKO LEGEAK
CUPO AL ESTADO. LEYES QUINQUENALES

Kupoa zehazteko metodologiari dagokionez, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartu zuen Ekonomia Itunaren 50. atalak honela dio:

"Bat. Bost urtez behin, hurrengo Atalak aipatzen duen Ekonomi Itunaren Bitariko Batzordeak onartu ondoren Gorte Nagusiek botoz onartutako legez, bosturtekoan indarrean egongo den kupoa izendatzeko jardute-arauak zehaztuko dira, Itun honetan ezarritako guztizko oinarri-irizpideen arabera, eta bost urteotatik lehenengorako kupoa onartuko da.

Bi. Lehenengo urtetik aurrera Ekonomi Itunaren Bitariko Batzordeak kupoa urtero-urtero eguneratu egingo du, aurreko zatian aipatzen den legean onartutako jardute-arauak erabiliz."

Abenduaren 28ko 11/2017 Legeak, 2017-2021 bosturtekorako kupoa zehazteko metodologia onartu zen, eta 2017ko ekitaldia ezarri zen bosturtekorako abiaburu-urtetzat.

Onartutako metodologiak 2017rako behin-behineko kupo likidoa nola kalkulatu. Kalkulu hori egiteko, bada, Ekonomia Itunari jasotako metodologia aplikatu behar da, eta haren zenbatekoa, zehazki, 1.304.535,50 mila eurokoa da:

En relación a la metodología de señalamiento del Cupo, el artículo 50 del Concierto Económico aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, dispone:

"Uno. Cada cinco años, mediante ley votada por las Cortes Generales, previo acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico, se procederá a determinar la metodología del señalamiento del cupo que ha de regir en el quinquenio, conforme a los principios generales establecidos en el presente Concierto, así como a aprobar el cupo del primer año del quinquenio.

Dos. En cada uno de los años siguientes al primero la Comisión Mixta del Concierto Económico procederá a actualizar el cupo mediante la aplicación de la metodología aprobada en la ley a que se refiere el apartado anterior."

La ley 11/2017, de 28 de diciembre, aprobó la Metodología de señalamiento del Cupo para el quinquenio 2017-2021, fijándose el ejercicio 2017 como año base del quinquenio.

La metodología aprobada fija un cupo líquido provisional para 2017, determinado por aplicación de la metodología contenida en el Concierto Económico, cuyo importe asciende a 1.304.535,50 miles de euros:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BEHIN-BEHINEKO KUPOA 2017 URTERAKO CUPO PROVISIONAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO PARA 2017		(mila eurotan) (en miles de euros)
ESTATUAREN AURREKONTUA. GASTUAK PRESUPUESTO DEL ESTADO. GASTOS		276.152.254,24
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK BERE GAIN HARTUTAKO KARGAK CARGAS ASUMIDAS POR LA COMUNIDAD AUTÓNOMA		89.966.505,13
EAEK BERE GAIN HARTU EZ DITUEN KARGAK. GUZTIRA TOTAL CARGAS NO ASUMIDAS		186.185.749,11
EAEK BERE GAIN HARTU EZ DITUEN KARGEI EGOTZITAKO INDIZEA (6,24%) IMPUTACIÓN DEL ÍNDICE A LAS CARGAS NO ASUMIDAS (6,24%)		11.617.990,74
KENDU BEHARREKO KONPENTSAZIOAK ETA EGOKITZAPENAK COMPENSACIONES Y AJUSTES A DEDUCIR		(10.313.455,24)
Itundu gabeko zergengatik Por tributos no concertados	(539.702,10)	
Zergak ez diren bestelako sarrerengatik Por otros ingresos no tributarios	(595.209,88)	
Aurrekontu-defizitagatik Por déficit presupuestario	(8.781.465,54)	
Itunpeko zuzeneko zergengatik Por Impuestos Directos concertados	(397.077,72)	
KUPO LIKIDOA CUPO LÍQUIDO		1.304.535,50
Arabako Konpentsazioak: Ekonomia Itunaren Laugarren Xedapen Iragankorra Compensaciones Álava: Disposición Transitoria Cuarta del Concierto Económico		(4.426,53)
Ordaindu beharreko likidoa Líquido a pagar		1.300.108,97

(1) Zenbateko horretan ez da bereganatutako karga gisa sartzen lanaren, enpleguaren eta lanbide-heziketaren eremuko programa eta jarduera publikoekin lotutako kostuaren behin-behineko balorazioa. Eremu horretako programa eta jarduerak, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuaren bidez (G letrako 2 zenbakia).

Abenduaren 28ko 11/2017 Legean jasotako metodologiaren arabera, bosturtekorako abiaburu-urteko kupoa honela zehazten da: Ekonomia Itunean jasotako mekanikaren arabera, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrak abiapuntutzat hartuta, Autonomia Erkidegoak beregain hartu gabeko kargen zenbateko osoan zerga-indizea aplikatuta, kontuan hartuta, gainera, itundu gabeko zergen, zergarik osatzen ez duten diru-sarrereren eta aurrekontu-defizitaren ondoriozko konpentsazioak.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoari eta Estatuari zuzeneko zergengatik atxikitzeak diren sarrereren balioztapena hobetzeko doiketa bat sartzen da.

Bosturtekoaren hurrengo urteetarako behin-behineko Kupo likidoak

Bosturtekoaren osteko urteetako kupo likidoak behin-behinean zehazteko, 2017rako behin-behineko kupo likidoaren gainean eguneraketa-indize bat aplikatuko da. Indize hori, zehazki, honako bien arteko zatidura da: Estatuak itunduko zergen zioz izango dituen diru-sarrereren aurreikuspena, Autonomia Erkidegoari osorik laga zaizkion zergak kanpo, hots, kupo likidoari dagokion ekitaldian Estatuko diru-sarrereren aurrekontuko I. eta II. kapitulueta agertzen direnak; eta bosturteko abiaburu-urterako zerga-kontzeptu berberen zioz aurreikusitako diru-sarrerak, behar bezala homogeneizatuak.

horrezaz gain, oinarri-urtearen ondorengo ekitaldietako Kupoak kalkulatzeko, kontuan hartuko da eskura daitezkeen aginpide berrien finantzaketa. Horrek Kupo gutxiagotzea ekarriko du berekin.

Gainera, eta autonomia erkidego guztiei transferitutako kudeaketa gaietan Estatuko Administrazioak aparteko aurrekontuko finantzazioarekin jarduketa berriak bere gain har baditzan ere, ezarrita dago Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa izango dela Euskal Autonomia Erkidegoari, hala behar bada, dagozkion aparteko aurrekontuko zuzkidura horietan parte hartze finantzarioa zehaztuko duena.

Kupoen behin-betiko kitapena

Kupo likidoen behin-betiko kitapenak Estatuak jasotako bilketa erreala ezagutu eta gero burutuko dira. Bilketa horri esker, behin-betiko eguneratze-indizearen balorea ezagutu ahal izango da. 2017-2021rako Kupoaren Metodologian zehaztutakoaren arabera, behin-betiko kitapena Kupo likidoari dagokion ekitaldiaren hurrengo urteko maiatzean burutuko da.

Aurreko Bosturteko Legeetan ezartzen ziren bezala, Legean ere ezartzen da bosturtekoaren oinarria den urterako behin-behineko Kupo kitzatzeko kontuan hartuko direla honako hauek: Estatuak oinarria den urtean jasotako zerga-bilketa likido erreala eta Estatuaren Sarrera Aurrekontuan urte horretarako jasotzen den zerga-bilketa aurreikuspenaren arteko eguneratze indizearen balio

(1) En este importe no está integrada como carga asumida la valoración provisional del coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional traspasados al País Vasco por el Real Decreto 1441/2010, de 5 de noviembre (Apartado G.2).

Según la metodología contenida en la Ley 11/2017, de 28 de diciembre, el Cupo del año base del quinquenio se obtiene, siguiendo la mecánica contenida en el Concierto Económico, en base a los Presupuestos Generales del Estado para 2017, por aplicación del índice de imputación al importe total de las cargas no asumidas por la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta, además, las compensaciones por tributos no concertados, por ingresos no tributarios y por el déficit presupuestario.

Asimismo, se incluye un ajuste para el perfeccionamiento de la estimación de los ingresos por Impuestos Directos imputables al País Vasco y al resto del Estado.

Cupos líquidos provisionales de los años siguientes del quinquenio

Los Cupos líquidos de los años siguientes del quinquenio se determinan provisionalmente por aplicación sobre el cupo líquido provisional para 2017 de un índice de actualización, que se define como el cociente entre la previsión de ingresos del Estado por tributos concertados, excluidos los tributos cedidos en su totalidad a las Comunidades Autónomas, que figuren en los capítulos I y II del Presupuesto de Ingresos del Estado en el ejercicio al que se refiere el Cupo líquido y los ingresos, debidamente homogeneizados, previstos por los mismos conceptos tributarios para el año base del quinquenio.

Adicionalmente, para el cálculo de los Cupos de los ejercicios siguientes al año base, se tendrá en cuenta la financiación de las nuevas competencias que se produzcan, con el consiguiente efecto de minoración de Cupo.

Además, en previsión de que la Administración del Estado asuma nuevas actuaciones con financiación presupuestaria extraordinaria en materias con gestión transferida a todas las Comunidades Autónomas, se establece que será la Comisión Mixta del Concierto Económico la que determine la participación financiera en dichas dotaciones presupuestarias extraordinarias que, en su caso, corresponda al País Vasco.

Liquidación definitiva de los Cupos

Las liquidaciones definitivas de los Cupos líquidos se realizarán una vez conocida la recaudación realmente obtenida por el Estado, que permita obtener el valor real del índice de actualización definitivo. Según se dispone en la metodología del Cupo para 2017-2021, la liquidación definitiva se efectuará en el mes de mayo del ejercicio siguiente al que se refiera el Cupo líquido.

Al igual que en las anteriores Leyes Quinquenales, se establece que, excepcionalmente, el Cupo provisional del año base del quinquenio se liquidará considerando el valor real del índice de actualización que se deduzca de la recaudación líquida realmente obtenida por el Estado en el año base, respecto a la previsión de recaudación para ese mismo ejercicio que figure en el Presupuesto de Ingresos

erreal.

Enplegu Politika Aktiboen balorazioa

Kupoa zehazteko metodologiaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari lanaren, enpleguaren eta lanbide heziketaren eremuko programa eta jarduera publikoekin lotutako kostuan parte hartzeagatik dagokion finantziarioa, azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, ekitaldi bakoitzean ordaindu beharreko kupo likidoa konpentsatuta kenduko da.

Horrez gain, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko maiatzaren 17ko laugarren akordioaren bidez 2010eko urriaren 28ko Transferentzien Batzorde Mistoaren akordio (G) letran aurreikusitako aurrekontu-araubidearen akordio osagarria onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegora lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren eremuko zeregin eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa.

Era berean, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoko 2020ko martxoaren 11ko Bosgarren.Bi eta Zazpigarren.Bi Akordioak, eta 2020ko irailaren 30eko EIBMko Seigarren Akordioak, funtzio eta zerbitzu horiek eskualdatzeari buruz aurreikusitako aurrekontu-araubidea osatzen dute.

Bosturtekoko ekitaldietako bakoitzean, EAERI enplegu-politika aktiboen arloko programei lotutako kostuan parte hartzeagatik dagokion finantziarioaren behin-behineko eta behin betiko balorazioa aipatu akordioetan onartutako sistematika aplikatuz zehaztuko da.

Beste xedapen batzuk

Kupoaren Metodologiaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak 1997-2001 bosturtekoan lehen aldiz ezarritako Konpentsazio Finantzarioen jadanekotasunari eusten dio, finantza neutraltasuna ziurtatzeko Fabrikazio Zerga Bereziak adostu ondoren.

Beste aldetik, laugarren eta bosgarren xedapen gehigarriak administrazio bien adostasuna eskatzen dute, zerga-araubidean edo estatu eta gainontzeko erakundeen arteko zerga erregimenaren inguruko eskualdaketak gauzatzeko badira, besteak beste.

Bukatzeko, aurreko bosturteko legeetan bezala, Erabakiak bere Azken Xedapenetako lehenengoan aurreikusten du, Xedapena indarrean dagoen aldi hurrengo ekitaldietako Kupoa zehazteko metodologia arautzeko Lege berriak onartzen ez bada, 2017-2021 bosturtekorako onartutako metodologia erabiliko dela 2022ko ekitaldiko eta ondorengo ekitaldietako Kupo likidoak behin-behineko zehazteko.

Nolanahi, aldi baterako kupo eta konpentsazio horiek ordeztu egingo dira gerora, arautzen dituen legea aplikatuta ateratzen diren kupo eta konpentsazioen bidez, legea onesten denetik aurrera.

del Estado.

Valoración de las Políticas Activas de Empleo

Por la Disposición Adicional Tercera de la Metodología de señalamiento del Cupo se aprueba que la financiación que corresponde al País Vasco por su participación en el coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional, de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 1441/2010, de 5 de noviembre, se deducirá por compensación del cupo líquido a pagar en cada ejercicio.

Adicionalmente, por el Acuerdo Cuarto de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 17 de mayo de 2017 se aprobó el acuerdo complementario al régimen presupuestario previsto en el apartado G) del acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias del 28 de octubre de 2010, sobre traspaso de funciones y servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional para el empleo.

Asimismo, los Acuerdos Quinto, Dos y Séptimo, Dos de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 11 de marzo de 2020, y el Acuerdo Sexto de 30 de septiembre de 2020, complementan el régimen presupuestario previsto sobre el traspaso de estas funciones y servicios.

En cada uno de los ejercicios del quinquenio, la valoración provisional y definitiva de la financiación correspondiente a la CAPV por participación en el coste asociado a los programas en materia de políticas activas de empleo vendrá determinada por aplicación de la sistemática aprobada en los referidos acuerdos.

Otras disposiciones

La Disposición Adicional Primera de la Metodología de Cupo mantiene la vigencia de las Compensaciones Financieras establecidas por primera vez en el quinquenio 1997-2001, para asegurar la neutralidad financiera tras la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación.

Por otro lado, las disposiciones adicionales cuarta y quinta remiten a la necesidad de acuerdos entre ambas administraciones, en los supuestos de reforma del régimen tributario o del régimen de cesión de tributos del Estado respectivamente.

Por último, como en las leyes quinquenales anteriores, el acuerdo prevé, en la Disposición Final Primera, que si transcurrido el plazo de vigencia de la misma no se hubiera aprobado una nueva Ley reguladora de la metodología de señalamiento del Cupo para los ejercicios siguientes, se aplicará la metodología acordada para el quinquenio 2017-2021, en el señalamiento provisional de los Cupos líquidos del ejercicio 2022 y siguientes.

Los cupos y compensaciones así determinados se sustituirán por los que resulten procedentes de aplicar la Ley que los regule, una vez sea aprobada.

**1.2. 2022-2026 URTEETAKO EKITALDIEI APLIKA DADIEKEN ETA EAren
AURREKONTUAK FINANTZATZEKO FORU ALDUNDIEK EGIN BEHAR
DITUZTEN EKARPENAK ZEHAZTEKO METODOLOGIA**

***METODOLOGÍA DE DETERMINACIÓN DE LAS APORTACIONES
DE LAS DIPUTACIONES FORALES A LA FINANCIACIÓN DE LOS
PRESUPUESTOS DE LA CAPV PARA LOS EJERCICIOS 2022-2026***

Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22. artikulua zortzigarren atalean ezartzen duenez, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak baliabideak banatzeko metodologia onartuko du, bai eta lurralde historiko bakoitzak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu-gastuei egin beharreko ekarpenak zehaztea ere, gutxienez hiru urteko aurrekontu-aldietarako, Kontseiluaren iritziz salbuespenezko inguruabarrak gertatzen direnean izan ezik, ekitaldi baterako eta birako indarraldia izatea gomendatzen badute. Era berean, Jaurlaritzak dagokion lege-proiektua aurkeztuko dio Legebiltzarrari, onar dezan. Bertan, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki duen metodologia jasoko da.

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2021eko uztailaren 15ean egindako bileran, Baliabideak Banatzeko eta Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologia adostu zuen. Akordio hori Eusko Legebiltzarrak, urriaren 7ko 4/2021 Legearen bitartez, onartu zuen.

Urriaren 7ko 4/2021 Legeak barne hartzen duen metodologiak bere ildo nagusietan mantentzen du 1985etik aplikatu den baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko sistema, orduan ezarritako oinarriko printzipioak zainduz. Metodologia kontinuitista bada ere, kupoa zehazteko metodologiaren edo Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabakien aplikaziotik eratorritako alderdiak eguneratu dira, baita autonomia-erkidegoen eskumen-eremuetan Estatuak har ditzakeen finantzaketa-konpromisoetatik edo zerbitzuen eskualdaketa jakin batzuk finantzatzeko araubide espezifikoetik eratorritakoak ere.

Metodologia berriak ez du zerikusirik aurreko metodologiaren egiturarekin; izan ere, metodologia horren aginduetako batzuk berrantolatu egin dira, baliabideen banaketa bertikal eta horizontalaren barne-eredua zehazten duten elementuak argi eta garbi identifikatzeko helburuarekin, eta, zalantzarik gabe, metodologia behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren baina operatiboak edo instrumentalak diren arauetatik.

Ekarpenei buruzko Legearen metodologiak sei oinarriko ataletan banatzen da, sei xedapen gehigarrietan eta Azken Xedapen Bakarrean.

1.2.1. Banatu beharreko baliabideak zehaztea

Urriaren 7ko 4/2021 Legeak barne hartzen duen metodologiaren lehen kapitulua Ekonomia Itunetik datozen eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen artean urtero banatu behar diren baliabideak zehazteari buruzkoa da. Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 20. artikuluaekin bat etorritik, banatu beharreko baliabideak formulatzeko oinarriko printzipioak eta zerrenda ez dira aldatu, baina aipatzekoa da 2007-2011 metodologiak banaketa bertikaleko ereduari buruzko kapituluan sartzen zituela.

Banatu beharreko baliabideak Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortutako eta banaketapeko diru-sarreraren eta kupoaren metodologia aplikatuzetik eratorritako obligazioen ondoriozko kenkarien arteko aldea izango da.

El artículo 22 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, en su apartado octavo, establece que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas aprobará la metodología de distribución de recursos y la determinación de las aportaciones de cada Territorio Histórico a los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma con vigencia para períodos mínimos de tres años presupuestarios, salvo que ocurran circunstancias excepcionales a juicio del Consejo, que aconsejen su vigencia para uno y dos ejercicios. Asimismo, el Gobierno elevará al Parlamento, para su aprobación, el correspondiente proyecto de Ley que incorporará la metodología antes citada que hubiere acordado el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordó, en sesión celebrada el 15 de julio de 2021 la metodología de distribución de recursos y de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026. Dicho acuerdo fue aprobado por el Parlamento Vasco por la Ley 4/2021, de 7 de octubre.

La metodología que incorpora la Ley 4/2021 de 7 de octubre mantiene en sus grandes líneas el sistema de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones que se ha venido aplicando desde 1985, salvaguardando los principios básicos establecidos entonces. Aun siendo eminentemente una metodología continuista, se han actualizado aquellos aspectos que se derivan de la aplicación de la metodología de señalamiento de cupo o de acuerdos adoptados por la Comisión Mixta del Concierto Económico, de los compromisos de financiación que pueda adquirir el Estado en ámbitos de competencia de las comunidades autónomas o del régimen específico de financiación de determinados traspasos de servicios.

La nueva metodología se diferencia de la metodología anterior en su estructura, ya que algunos de sus preceptos se han reordenado con el objetivo de identificar claramente los elementos que determinan el modelo interno de distribución vertical y horizontal de los recursos, de aquellas normas que, siendo sin ninguna duda necesarias para la correcta aplicación de la metodología, son de carácter operativo o instrumental.

La metodología de la Ley de Aportaciones se estructura en seis apartados básicos, seis Disposiciones Adicionales y una Disposición Final.

1.2.1. Determinación de los recursos a distribuir

La metodología que incorpora la Ley 4/ 2021 de 7 de octubre dedica su primer capítulo a determinar los recursos procedentes del Concierto Económico que deben distribuirse anualmente entre las instituciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En consonancia con el artículo 20 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, la enumeración y los principios básicos para la formulación de los recursos a distribuir no han variado, si bien cabe reseñar que la metodología 2007-2011 los incluía en el capítulo dedicado al modelo de distribución vertical.

Los recursos a distribuir se definen por diferencia entre los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto y las correspondientes deducciones derivadas de las obligaciones que se derivan de la aplicación de la metodología de cupo.

a) Banaketapeko diru-sarrerak (R)

Metodologiak zehazten du banaketapeko diru-sarrerak honako hauek direla, zehazki:

a) Indarrean dagoen ekitaldiko tributu itunduen diru-bilketatik datozenak, sortzapen edo sorrera urtea edozein dela ere.

a) Zuzeneko zerga itunduak.

b) Zeharkako zerga itunduak.

c) Jokoaren gaineko tributu itunduak.

d) Epez kanpoko aitorpenagatiko errekaruak, epe exekutiboko errekaruak, berandutze-interesak eta zerga itunduei dagozkien zergapeko egitateengatik sartutako diruzko zehapenak.

b) Ekitaldi bakoitzean diru-sarrera fiskal itunduak direla-eta foru-aldundien alde sortutako interes likidoak.

b) Kупoa zehazteko metodologiatik datozen kenkariak (D)

Kupoa zehazteko metodologiatik eratorritako kenkariak honako hauek dira:

a) Estatuari kupo likido gisa ordaindu beharreko kopurua eta, hala badagokio, kupoa zehazteko indarreko metodologian aurreikusitako konpentsazioengatik Estatuaren alde ateratzen den zenbatekoa.

b) Minus zeinuarekin, kupoa zehazteko indarreko metodologian aurreikusitako konpentsazioengatik Euskadiren alde ateratzen den zenbatekoa, hala badagokio.

c) Euskadiri dagokion zenbatekoa, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko programa eta jarduera publikoei lotutako kostuan parte hartzeagatik.

d) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak kupotik gutxitzea erabakitzen duen zenbatekoa, hauen ondoriozko ezohiko finantzaketarako: legegintzako neurriak, interes orokorreko neurriak edo Euskadiren eskumeneko eginkizun eta zerbitzuei buruzko erakundearteko akordioak.

c) Kenkari berezia

Azaroaren 25eko 27/83 Legearen 22.3 artikulua aplikatuz, metodologian Eusko Jaurlaritzak ekonomia-plangintza, sustapen eta garapenerako politikak finantzatzeko kenkari berezia jasotzen da, baita egonkortasun politikoa eta ekonomikoa ziurtatzeko neurriak hartzea ere. Era berean, politika horiek egiteko administrazio eskuduna den Eusko Jaurlaritzak proposatuta, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki dezake kenkari horren zenbatekoa urriaren 7ko 4/2021eko Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren interes orokorreko proiektuak finantzatzeko erabiltzea.

a) Ingresos sujetos a reparto (R)

En la metodología se determinan que los ingresos sujetos a reparto son, concretamente:

a) Los procedentes de la recaudación de las diputaciones forales por tributos concertados durante el ejercicio en curso, independientemente del año de su devengo o generación:

a) Los impuestos directos concertados.

b) Los impuestos indirectos concertados.

c) Los tributos concertados sobre el juego.

d) Los recargos por declaración extemporánea, los recargos del periodo ejecutivo, los intereses de demora y las sanciones pecuniarias ingresadas por hechos imponibles referidos a los tributos concertados.

b) Los intereses líquidos devengados a favor de las Diputaciones Forales, por razón de ingresos fiscales concertados durante cada ejercicio.

b) Deducciones procedentes de la metodología del Cupo (D)

Las deducciones procedentes de la metodología de señalamiento del cupo son las siguientes:

a) La cantidad a pagar como cupo líquido al Estado y, en su caso, el importe que resulte a favor del Estado por las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del cupo vigente.

b) Con signo negativo, el importe que, en su caso, resulte a favor del País Vasco por las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del cupo vigente.

c) El importe que corresponde al País Vasco por su participación en el coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional para el empleo.

d) El importe que la Comisión Mixta del Concerto Económico acuerde minorar del cupo para la financiación extraordinaria derivada de medidas legislativas, de medidas de interés general o de acuerdos interinstitucionales sobre funciones y servicios de competencia del País Vasco.

c) Deducción especial

En aplicación del artículo 22.3 de la Ley 27/83, de 25 de noviembre el Acuerdo recoge la deducción especial para la financiación por parte del Gobierno Vasco de las políticas de planificación, promoción y desarrollo económico, así como la adopción de medidas orientadas a asegurar la estabilidad política y económica. Asimismo, se mantiene la posibilidad de que, a propuesta del Gobierno Vasco como administración competente para la realización de estas políticas, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas acuerde destinar el importe de esta deducción a financiar los proyectos de interés general a los que se refiere la Disposición Adicional Tercera de la Ley 4/2021 de 7 de octubre.

d) Banatu beharreko baliabideak

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen finantzaketa orokorrerako banatu beharreko baliabideak definitzen ditu, Ekonomia Itunaren kudeaketatik eratorritako diru-sarreraren eta (D) eta (P) kenkarien arteko diferentzia gisa.

$$RD = R - (D + P)$$

1.2.2. Banaketa bertikaleko eredua

Urriaren 7ko 4/2021 Legeak barne hartzen duen metodologiaren bigarren kapituluak Ekonomia Itunetik datozen baliabideen banaketa bertikalaren eredua zehazten du.

2022-2026 aldirako indarrean egongo den banaketa bertikaleko koefizientea % 70,81ekoa izango da.

Bestalde, 6. artikulua zehazten du foru-aldundiek ekitaldi bakoitzean erakunde erkideen karga orokorrei eusteko egin beharreko ekarpena orokorra, 4. artikuluan definitutako banatu beharreko baliabideei 2022/2026 bosturtekorako finkatutako banaketa bertikaleko koefizientea (% 70,81) aplikatzearen ondorioz.

$$AG = \% 70,81 RD$$

Ekarpen orokorraz gain, foru-aldundiek ekarpen bereziak egingo dizkiete erakunde erkideei, Autonomia Erkidegoari dagokion zenbatekoetan, honako kontzeptu hauengatik:

- Lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko programa eta jarduera publikoei lotutako kostuan parte hartzea.
- Bere eskumeneko eginkizun eta zerbitzuen ezohiko finantzaketa.
- Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22.3 artikuluan jasotako politika eta eginkizunen finantzaketa.

Era berean, metodologiak zenbait arau jasotzen ditu ekarpenak aldatzeko, bai eskumen berriak bere gain hartzeagatik, bai erakunde erkideek beren gain hartutako eskumenak ohiz kanpo finantzatzeagatik, bai erakunde erkideen eta foru-aldundien artean eskumenak eskualdatzeagatik. Kasu honetan, koefiziente bertikalean sartu gabeko eskualdaketak baloratzeko jarraitu beharreko prozedura zehazten da.

Halaber, banaketa bertikalaren ereduan egin beharreko aldatzak jasotzen dira, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko programa eta jarduera publikoei lotutako kostuaren finantzaketan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen ezohiko finantzaketan egindako aldatzea edo akordioetatik eratorritakoak.

1.2.3. Banaketa horizontalaren eredua

Kapitulu honetan, baliabideen banaketa horizontala egiten da. Eredua horrek, ekarpen-koefiziente horizontalen bidez, lurralde historiko bakoitzari erakunde erkideei egindako ekarpenen eta kupoa zehazteko metodologiaren ondoriozko betebeharren gainean dagokion ekarpen

d) Recursos a distribuir

Finalmente, define los Recursos a Distribuir para la financiación general de las instituciones del País Vasco, como diferencia entre los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto (R) y las deducciones (D) y (P).

$$RD = R - (D + P)$$

1.2.2 Modelo de distribución vertical

El segundo capítulo de la metodología que incorpora la Ley 4/2021 de 7 de octubre determina el modelo de distribución vertical de los recursos procedentes del Concierto Económico.

El coeficiente de distribución vertical que tendrá vigencia para el periodo 2022-2026 se establece en el 70,81%.

Por su parte, el artículo 6 determina la formulación de la Aportación General que las diputaciones forales deben destinar cada ejercicio al sostenimiento de las cargas generales de las instituciones comunes aplicando el coeficiente de distribución vertical fijado para el quinquenio 2022/2026 (70,81%) a los Recursos a Distribuir definidos en el artículo 4.

$$AG = \% 70,81 RD$$

Además de la Aportación General, las diputaciones forales procederán a efectuar Aportaciones Específicas a las instituciones comunes por los importes que correspondan a la Comunidad Autónoma por los conceptos siguientes:

- Participación en el coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional para el empleo.
- Financiación extraordinaria de funciones y servicios de su competencia.
- Financiación de las políticas y funciones recogidas en el artículo 22.3 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre.

La metodología contiene asimismo una serie de reglas que prevén la modificación de las aportaciones bien por la asunción de nuevas competencias o por la financiación extraordinaria de competencias ya asumidas por parte de las instituciones comunes o bien por el traspaso de competencias entre las instituciones comunes y las diputaciones forales explicitando en este caso el procedimiento a seguir en la valoración de los traspasos no integrados en el coeficiente vertical.

Asimismo, se recogen las necesarias modificaciones que deben realizarse en el modelo de distribución vertical derivadas de modificaciones o acuerdos en la financiación del coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional para el empleo y en la financiación extraordinaria de competencias del País Vasco.

1.2.3. Modelo de distribución horizontal

En este capítulo se efectúa la distribución horizontal de los recursos, que determina mediante los coeficientes horizontales de aportación la contribución relativa que corresponde a cada Territorio Histórico sobre el conjunto de las Aportaciones a las instituciones comunes y a las

erlatiboa zehazten du.

Ekarpen-koefiziente horizontal horiek kalkulatzeko eutsi egiten zaio aurreko legeetan jasotako adierazpen matematikoari, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22.6 artikuluan berariaz adierazitako errentaren eta ahalegin fiskalaren irizpideetan oinarrituta. Bi aldagaien haztapenak, 2022-2026 aldiko ekarpen-koefiziente horizontalak kalkulatzeko, aldaezin jarraitzen du:

- Ekarpen-koefiziente horizontalaren % 70: lurralde historiko bakoitzari dagokion errenta erlatiboaren zuzeneko funtzioaren arabera.
- Ekarpen-koefiziente horizontalaren % 30: lurralde historiko bakoitzari dagokion ahalegin fiskal alderantzizko erlatiboaren zuzeneko funtzioaren arabera, lurralde horren zerga-bilketarako ahalmenaren arabera haztatuta.

Ekarpen-koefiziente horizontalen urteko kalkuluan erabili beharreko aldagaiak definitzen dira, eta zehazten da foru-aldundi bakoitzak erakunde erkideei egin beharreko ekarpena lortzeko, dagokion ekarpen-koefiziente horizontala aplikatuko zaiola bigarren kapituluaren definitutako ekarpen orokorren eta berezien zenbatekoari.

Eutsi egiten dira BEZaren eta fabrikazio-zerga berezien kudeaketa propioaren bilketari egindako lurralde arteko doikuntzak, lurralde bakoitzeko ekarpen-koefiziente horizontalen arabera. 2/2007 Legearekin alderatuta, metodologia berriak zehazten du elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren bilketa ere lurraldeen artean doitu behar dela, gaur egun ez baita fabrikazio-zerga berezizat hartzen, eta, horregatik, beharrezkoa da zerga hori berariaz aipatzea.

